

Alkateordeen izendapena eta eskumenak

Alkatearen ordezkook, haren funtzio guztietan, hura ez dagoenean, gaixo denean edo bere eskumenak gauzatzea eragozten dion egoeraren batean dagoenean.

Halaber, alkatearen funtzioak egiten dituzte, kargua hutsik geratzen denean, alkate berria karguaz jabetu arte, saioen batera alkateak azaldu ezin duenean, eta abar...

Izendapena

Alkateak berak izendatzen eta kargugabetzen ditu, nahierara. Tokiko gobernu batzarreko kideak izaten dira alkateordeak, eta, gobernu-batzarrik ez den kasuetan, zinegotziak.

Gehienezko Kopurua

Tokiko gobernu-batzarreko kideen kopuru bera, eta, horrelakorik ez bada, gehienez ere zinegotzien legezko kopuruaren heren bat.

Eskuordetza

Alkatearen ahalmenen eskuordetza alkatetzaren dekretu baten bidez egingo da.

Alkatearen Ordezkapena

Izendatuak izan diren hurrenkera berean ordezkaturako dute alkatea.

Eskumenak

- Alkatea kanpoan, gaixo, ezinduta edo oporretan badago, alkatearen ahalmen guztiak izango dituzte, eskuordetzarekin edo gabe, kasuan kasu.
- Alkateak berariazko eskuordetza egiten badu, alkateordeek ordezkotzaz egin daitezkeen ahalmen guztiak egingo dituzte, Toki-Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea kontuan izanda.